

Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2020-2021	IRAKASLEA	Amaia Goienetxe
MAILA	DBH 1	ARLOA	Euskal Hizkuntza eta Literatura

HELBURUAK, EDUKIAK , EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDARRAK


[24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa](#), Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

OINARRIZKO GAITASUNAK

x	Hizkuntza komunikazioa	x	Gaitasun sozial eta zibikoak
x	Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarriko gaitasunak	x	Ekimena eta ekintzaitza
x	Gaitasun digitala	x	Kontzientzia eta adierazpen kulturalak
x	Ikasten ikasteko gaitasuna		

EDUKIAK / GAIK

1. hiru hilabetea	Gramatika: Perpausa eta osagaiak Deklinabidea: kasuak, lekua, denbora Aditza: izan, ukan laguntzaileak eta trinkoak Lexikoa eta ortografia: Datak, orduak Atzizkiak Letra larria, puntuazio-markak Irakurmena, entzumena eta mintzamena: grabazioak, ipuinak, irratia, deskribapena Idazmena: deskribapena, albisteak Literatura: Poema jostalariak, koplak zaharrak, erromantzeak
2. hiru hilabetea	Gramatika: perpausa motak; baldintza eta erlatiboa Deklinabidea: gainerako kasuak, mugagabea Aditza: aspektua, baldintza eta hipotetikoak, nor-nork Lexikoa eta ortografia: puntuazio markak, -A itsatsia eta H erabilera, atzizkiak Irakurmena, entzumena eta mintzamena: grabazioak, ipuinak, irratia, deskribapena, euskalkiak Idazmena: komunikatzekoak (gutuna, e-mailak), Literatura: bertsolaritza, olerkigintza, narratiba, euskalkiak
3. hiru hilabetea	Gramatika: perpausa motak; konparazioa, osagarria, denbora, kausa, kontzesiozkoak Aditza: Nor-nori, nor-nori-nork, ahalera, agintera, subjuntiboa Irakurmena, entzumena eta mintzamena: grabazioak, ipuinak, irratia, liburua, Ultzama eta Basaburuko euskara Idazmena: ipuinak, Literatura: antzerkia, narratiba



Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA


KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1.- Landuko ditugun arloak eta ebaluazio bakoitzeko nota

Arloak	%	Jarduerak
Jarrera	% 15	Errespetua. Euskaraz mintzatzea irakaslearekin eta ikasleekin. Lan giroa. Etxeko lan modura eskaturiko ariketak.
Idatzizko zein ahozko testuen sorkuntza	% 20	Testu-mota bat klasean landu eta idatzizko edota ahozko aurkezpena egin. Testuen sorkuntza.
Idatzizko zein ahozko testuen ulermena	% 15	Irakurmena edota entzumena neurtzeko eta garatzeko ariketak.
	% 15	Irakurketa liburuak: Lanak edota azterketak.
Azterketak: Gramatika, literatura, hiztegia, ortografia	% 35	Hiruhilekoan ikasitako edukien gaineko azterketa bakarra. Munta ertaineko proiektuak.

2- Oharrak

- Nahitaezkoa izanen da jarrera arloa gainditzea ebaluazioa gainditzeko.
- Ebaluazioan, testu bakar bat ez sortzekotan, edukien balioa % 60 izango da.
- **Testuen ulermenean, sorketan eta azterketetan gutxienez 4 atera behar da.** Hortik beherako notak **0 bihurtuko dira** batezbestekoa kalkulatu baino lehen.
- Ebaluazioa **gainditzeko 5** behar da.
- Lan bakar bat ez emateagatik suspendituko da. Ebaluazioan, gehienez ere, 4 izango du. **Lanak berandu entregatuz gero, lorturiko kalifikazioaren %65a** kontuan hartuko da.
- Orientatzailearen aholkuak entzunda, irakasleak eskubidea izango du hemen agertzen diren irizpideak aldatzeko, beti ere ikaslearen mesedetan bada.
- 5etik gorako notak biribiltzeko, hauxe izango da irizpidea:
 - 5,5 → 6 / 6,5 → 7 / 7,5 → 8 / 8,5 → 9 / 9,5 → 10
 - 5 ← 5,4 / 6 ← 6,4 / 7 ← 7,4 / 8 ← 8,4 / 9 ← 9,4
- **Kopiatzea:** Azterketa edo lan batean kopiatzeak edo kopiatzen uzteak, froga horretan 0 ateratzea suposatuko du eta ebaluazioan gehienez 4 bat.
- **Akatsak:** Idazlanetan zein ahozko aurkezpenetan ez ezik, **azterketetan ere** kontuan hartuko dira **akats ortografiko eta gramatikalak**.
- Azken nota hiru ebaluazioetako noten **batezbesteko haztatua** izango da. Ebaluazio bakoitzaren pisua hauxe izango da:
 - 1. ebaluazioa: %25
 - 2. ebaluazioa: %35
 - 3. ebaluazioa: %40



Larraintzako

IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

- Ikasleren batek ebaluazio bat eta dagokion errekerperazioa suspenditzen badu, notarik altuena kontuan hartuko da.
- Batazbestekoa egiteko hiru ebaluazioak gaindituak izan behar dira. Bestela, ekaineko ohiko eta ez-ohiko deialdian gainditu gabeko ebaluazioen berreskurapena egin beharko da.
- Ekaineko ohiko deialdiko ebaluazioetako berreskurapenean lorturiko gehieneko nota 6 izango da.
- Ekaineko ohiko deialdian dana gainditzen ez bada, ekaineko ez-ohiko azterketa egin beharko da, eta gehieneko nota 5 izango da ebaluazio horretan.

BERRESKURAPEN SISTEMA

1.- Errekuperazioak

1. eta 2. ebaluazioek errekerperazioa izango dute, eta 3. ebaluazioaren errekerperazioa ohiko deialdian egingo da.

Behar dituztenei errefortzuzko ariketak emango zaizkie, baita ez-ohiko deialdirako ere.

Errekuperatzeko azterketak eta lanak eskatu ahal zaizkie ikasleei.

2.- Errekuperazio jarduerak. Aurreko mailetak gaintitu gabeak

Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaia suspenditu baina mailan aurrera egin duten ikasleek delako ikasgaia errekerperatuko dute baldin eta ondoko mailan lehenengo eta bigarren ebaluaketak gaintitzen badituzte. Bestela apirila aldean jarriko den azterketa egin eta gaintitu beharko dute.

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

- Baliabideak:
 - Classroom eta Drive
 - Eragin, Euskara eta Literatura, DBH 1, Zubia-Santillana
 - Eki proiektua, DBH 1
 - Sarean dauden baliabide ezberdinak
- Metodologia:
 - Metodologia eraikitzaileak eta kooperatiboak erabiltzea bilatuko da
- Aniztasuna:
 - Errefortzu eta zabaltze ariketak eta jarduerak proposatuko dira beharren arabera

Oharra: programazio laburtu hau kurtsoan zehar sorturiko beharretara egokitzeko malgua izanen da.

Sinadura
Amaia Goienetxe

Larraintzarren, 2020ko irailaren 11n.